

# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 1257

*HUTS-ZUZENKETA, ebazpen honena: 31/2023 Ebazpena, otsailaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, 2023. urterako araugintza-plana onartzeko erabakia argitaratzeko dena.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikulua ezar-tzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarra-rekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Era horretako hutsak aurkitu dira, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harre-manetarako zuzendariaren otsailaren 21eko 31/2023 Ebazpenean, zeinaren bidez 2023. urterako araugintza-plana onartzeko erabakia argitaratzen den. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2023ko martxoaren 2an argitaratu zen (43. zk.), baina haren eranskina ez zen argita-ratu eta, hortaz, honen bidez argitaratzea erabaki da.

## ERANSKINA

## EUSKO JAURLARITZAREN 2023. URTERAKO ARAUGINTZA-PLANA

A) Lege-aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluan 2023rako onartzea aurreikusita daudenak.

0.– Lehendakaritza
0.1.– Kanpoko Euskal Komunitateari buruzko Legearen aurreproiektua.
1.– Segurtasun Saila
1.1.– Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia Sortzeko Legearen aurreproiektua.
1.2.– Suteen prebentzio eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak arautzen dituen Legearen aurreproiektua.
2.– Lan eta Enplegu Saila
2.1.– Euskal Enplegu Sistemaren Legearen aurreproiektua.
3.– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.
3.1.– Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzeari buruzko Legearen aurreproiektua
3.2.– Lege-aurreproiektua, euskal ondare zuzenbidearen arloko berezitasunei eta familia-enpresaren eta ondarearen defentsari buruzkoa.
4.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.
4.1.– Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Legearen aurreproiektua.
5.– Ekonomia eta Ogasun Saila.
5.1.– Finantzen Euskal Institutuaren Legearen aurreproiektua.
5.2.– Dirulaguntzen araubidea arautzen duen Legearen aurreproiektua.
5.3.– 2023-2026 Euskal Estatistika Planaren Legearen aurreproiektua.
6.– Hezkuntza Saila.
6.1.– Euskal Hezkuntza Legearen aurreproiektua.
9.– Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.
9.1.– Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko Legearen aurreproiektua.
9.2.– Garapenerako Lankidetzaren Legearen aurreproiektua.
9.3.– Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko Euskal Legearen aurreproiektua.
9.4.– Legegintzako Dekretuaren proiektua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

B) Dekretu-proiektuak, Gobernu Kontseiluan 2023rako onartzea aurreikusita daudenak.

0.– Lehendakaritza
0.1.– Dekretu-proiektua, Gaztemundu programa arautzen duena.
0.2.– Dekretu-proiektua, Kanpoko Euskal Komunitatearentzako laguntzei buruzkoa.
0.3.– Dekretu-proiektua, Kanpo harremanen arloan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretua aldatzen duena.
0.4.– Dekretu-proiektua, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko prestakuntza-bekak arautzen dituena.
0.5.– Dekretu-proiektua, gazteen boluntariora-eremuetako Auzolandegiak programa arautzen duena.
0.6.– Dekretu-proiektua, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa arautzen duena.
0.7.– Dekretu-proiektua, Haur eta gazteen aisialdiko hezitzaileak prestatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueretako begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak ofizialki onartzeko eta horietan sartzeko modua arautzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.

0.– Lehendakaritza
0.8.– Dekretu-proiektua, gazteriaren arloan programak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituena.
0.9.– Dekretu-proiektua, gazteen mugikortasunerako edo trukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituena.
0.10.– Dekretu-proiektua, gazteen emantzipazio-diagnostikoak eta -planak egiteko EAEko toki-erakundeentzako dirulaguntzen oinarriak arautzen dituena.
1.– Segurtasun Saila
1.1.– Dekretu-proiektua, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa.
1.2.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duena.
1.3.– Dekretu-proiektua, Ertzaintzaren espezialitateei buruzkoa.
1.4.– Dekretu-proiektua, Udaltzaingoak defendatzeko eta hornitzeko baliabide teknikoak arautzekoa.
1.5.– Dekretu-proiektua, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Barne Arautegia onartzen duena.
1.6.– Dekretu-proiektua, «Euskalmet – Agencia Vasca de Meteorología SA» sozietate anonimo publikoa sortzekoa.
1.7.– Dekretu-proiektua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeetan erabili beharreko hautetsontzi, kabina, boto-paper, bozkatzeko gutun-azal eta hauteskondeetarako gainerako dokumentazioaren eredu ofizialak eta ezaugarri teknikoak eta material hori entregatzeko prozedura zehazten dituena.
2.– Lan eta Enplegu Saila
2.1.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko Dekretua aldatzen duena.
2.2.– Dekretu-proiektua, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena.
2.3.– Dekretu-proiektua, kooperatiben arloko zehapen-prozedura arautzen duena.
2.4.– Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita EAEko langile autonomoen elkarte profesionalen erregistroaren antolaketa eta funtzionamendurako araudia.
2.5.– Dekretu-proiektua, prebentzio zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituena.
2.6.– Dekretu-proiektua, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta enplegu-agentzien artean enplegu-zerbitzua emateko hitzartutako ekintza arautzen duena.
2.7.– Dekretu-proiektua, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena eta enpresa horietan sartzeko eta enpresa horiek erregistratzeko prozedura arautzen dituena.
2.8.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.
2.9.– Dekretu-proiektua, Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoarena.
2.10.– Dekretu-proiektua, Diru sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
3.– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
3.1.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan gaitzuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzkoa.
3.2.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundearen Erregistroa arautzekoa.
3.3.– Dekretu-proiektua, herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzekoa.
3.4.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroaren Erregelamendua onartzeko dena.
3.5.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua aldatzekoa.

3.– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
3.6.– Dekretu-proiektua, euskal sektore publikoko enplegatu publikoentzako telelanari buruzkoa.
3.7.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretua aldatzekoa.
3.8.– Dekretu-proiektua, Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakunde arteko Batzordea arautzeko dena.
3.9.– Dekretu-proiektua, Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi izeneko elkargoa sortzeko dena.

4.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
4.1.– Dekretu-proiektua, segurtasun industrialaren arloko profesionalen kualifikazioari buruzkoa.
4.2.– Dekretu-proiektua, Euskadiko energia berriztagarrien lurralde-plan sektoriala onartzen duena.
4.3.– Dekretu-proiektua, energia eolikotik energia elektrikoa sortzeko instalazioen baimena arautzen duena.
4.4.– Dekretu-proiektua, AEM-01 igogailuei buruzko Jarraibide Tekniko Osagarria garatzekoa.
4.5.– Dekretu-proiektua, portuetako udal kontseiluak sortzeari buruzkoa.
4.6.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategien Erregistroa eta ustiapen-koaderno elektronikoa arautzen dituena, eta ustiapen-koadernoari buruzko 203/2011 Dekretua eta 2014ko azaroaren 18ko Agindua indargabetzen dituena.
4.7.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan abereen ongizaterako eta abeltzaintzako ustiategien eta instalazioen antolamendu zooteknikorako baldintza higieniko sanitarioak ezartzen dituena.
4.8.– Esparru-dekretuaren proiektua, Euskadin Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) programa estrategikoa garatzekoa.
4.9.– Dekretu-proiektua, Erakunde Ordaintzailearen 275/2020 Dekretua aldatzekoa.
4.10.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea arautzen duena.
4.11.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzako produktu primarioen eta eraldatuen hurbileko salmenta arautzen duena.
4.12.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan urpeko jarduerak eta urpekaritzako lanbide-jarduera baimendu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzen dituena.
4.13.– Dekretu-proiektua, Arrantza Ikuskaritza Zerbitzuarena.
4.14.– Dekretu-proiektua, etxeko hondakinen balorizazio energetikoaren ondoriozko zepak balorizatzeko jarduerari aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen duena.
4.15.– Dekretu-proiektua, Izki Naturagune Babestuaren, Parke Naturalaren, Kontserbazio Bereziko Eremuaren eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren natura-baliabideak antolatzeko bigarren plana onartzen duena eta Izki Parke Naturalaren eta haren babes-zona periferikoaren mugak aldatzen dituena.
4.16.– Dekretu-proiektua, Armañongo Naturagune Babestuko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena eta Parke Naturalaren mugak eta haren babes-eremu periferikoa aldatzen dituena.
4.17.– Dekretu-proiektua, Aitzkorri Arazko Naturagune Babestuko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena eta Parke Naturalaren eta haren babes-eremu periferikoaren mugak aldatzen dituena.
4.18.– Dekretu-proiektua, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana aldatzeko dena.
4.19.– Dekretu-proiektua, Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinei buruzko Dekretua eta Agindua aldatzeko eta lurrak berrerabiltzeko eta balioztatzeko irizpideak ezartzeko dena.
4.20.– Dekretu-proiektua, Komunitateko konpostatze-instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.
4.21.– Dekretu-proiektua, Gasteizko Mendi Garaiak (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) handitzeko eta haren helburuak eta kontserbazio-neurriak egokitu eta eguneratzeko izendapen-dekretua aldatzen duena.
4.22.– Dekretu-proiektua, Genetikoki Eraldatutako Organismoak kontrolatzeko Biosegurtasunaren Euskal Batzordea sortzen duena, genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzeko eta nahita askatzeko baimenak

4.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarrtasun eta Ingurumen Saila
komunikatzeko eta eskatzeko prozedura arautzen duena eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen Baimen eta Komunikazioen Erregistroa sortzen duena.
4.23.– Dekretu-proiektua, URA-Uraren Euskal Agentziaren estatutuak onartzen dituena.
4.24.– Dekretu-proiektua, Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena.
4.25.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboko ustiategiak antolatzeko.

5.– Ekonomia eta Ogasun Saila
5.1.– Dekretu-proiektua, 2023ko Urteko Estatistika Programa onartzen duena.
5.2.– Dekretu-proiektua, Euskadiko Ondareari buruzko Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
5.3.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jardura antolatu eta gainbegiratzeko.
5.4.– Dekretu-proiektua, EAEko higiezin kredituko bitartekarien eta higiezin mailegu-emaielen baimena eta erregistroa eta horiek gainbegiratzeko eta zehatzeko eginkizunak arautzen dituena.
5.5.– Dekretu-proiektua, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloan zenbait dekretu aldatzen dituena.

6.– Hezkuntza Saila
6.1.– Dekretu-proiektua, otsailaren 3ko 21/2009 Dekretua aldatzeko dena (21/2009 Dekretua, otsailaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-zentroen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituena).
6.2.– Dekretu-proiektua, Ikastetxe ez unibertsitarioen zuzendaritza taldeak hautatzeko prozedura arautzen duena.
6.3.– Dekretu-proiektua, urriaren 27ko 289/1992 Dekretua aldatzeko dena (289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan "Musika-Eskola" direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena).
6.4.– Dekretu-proiektua, zeinaren bidez arautzen baita zer prozedurari jarraituko zaion Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan araubide bereziko kirol-ikasketak emango dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko eta emandako baimenak aldatu eta azkentzeko.
6.5.– Dekretu-proiektua, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.
6.6.– Dekretu-proiektua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.
6.7.– Dekretu-proiektua, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.
6.8.– Dekretu proiektua, Unibertsitatez Kanpoko Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen egitura eta funtzioak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.
6.9.– Dekretu-proiektua, Urrutiko Prestakuntzako Euskal Institutuaren antolamendu, funtzionamendu eta autonomia ezartzen duen ekainaren 19ko 93/2018 Dekretua aldatzen duena.
6.10.– Dekretu-proiektua, hezkuntza-sistemari laguntzeko oinarrizko egiturak eguneratzen dituena, horien antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituena eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.
6.11.– Dekretu- proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleei begira hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan aniztasunari eman beharreko erantzunari buruzkoa.
6.12.– Dekretu-proiektua, Ingurune estrategikoak bultzatu eta garatzekoa "TKGUNE" programaren erregulazioaren bitartez.
6.13.– Dekretu-proiektua, zeinaren bidez azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren eranskina aldatzen baita (dekretu horrek lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzarako bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura eta antolamendua ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan), prozeduran parte hartzeagatik aholkulariei, ebaluatzaileei eta ebaluazio-batzordeei eman beharreko konpentsazio ekonomikoak ezartzen dituena.
6.14.– Dekretu-proiektua, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua arautzen duena.

6.– Hezkuntza Saila
6.15.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen dituen 46/2014 Dekretua aldatzen duena.
6.16.– Dekretu-proiektua, Talentuaren Euskal Institutua sortzen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.
6.17.– Dekretu-proiektua, Ikaskuntza Birtualen eta Digitalizatuen Lanbide Heziketako Zentro Integratua sortzen duena.
6.18.– Dekretu-proiektua, Lanbide Heziketako eredu konbinatuan espezializatutako zentroen sarea sortzekoa.
6.19.– Dekretu-proiektua, Berrikuntza Aurreratuaren Kudeaketan Espezializatzeko Programena.
6.20.– Dekretu-proiektua, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ematen dituen titulazio ofizialak lortzeko unibertsitate ikasketen esperimantalitasun-mailak zehazten dituen.
6.21.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Itunpeko Ikastetxe Pribatuak Hezkuntza Itunen Araubidea eta Ordainketa Eskuordetuaren Sistema arautzen dituen.
6.22.– Dekretu-proiektua, Hezkuntza Sailak finantzatutako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatekoak ez diren ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioa arautzen duen Dekretua aldatzen duena.
6.23.– Dekretu-proiektua, 218/1997 Dekretua aldatzekoa, zeinaren bidez Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorren urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritako ikasketei dagozkien titulu akademiko eta profesional ez-unibertsitarioen erregistroa sortzen duena.

7.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
7.1.– Dekretu-proiektua, Hirigintza Estandarrak Arautzen dituen.
7.2.– Dekretu-proiektua, Etxebizitza Legez Okupatzeko Eskubide Subjektiboari buruzkoa.
7.3.– Dekretu-proiektua, Kreditu-erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzari buruzkoa eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa.

8.– Osasun Saila
8.1.– Dekretu-proiektua, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko martxoaren 23ko 116/2021 Dekretua aldatzen duena.
8.2.– Dekretu-proiektua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoaren mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalen garapen profesionala arautzen duena.
8.3.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio-sistemako laneko medikuntzaren prebentzio-diziplinaren kanpoko auditoria edo ebaluazioa egiteko baimena duten prebentzio-zerbitzuen eta pertsona edo erakunde espezializatuen osasun-jarduerari buruzkoa.
8.4.– Dekretu-proiektua, Osasun Saileko Aholku Batzordearen araubideari buruzko maiatzaren 24ko 121/2015 Dekretua aldatzeko edo ordeztzekoa.
8.5.– Dekretu-proiektua, Erabilera kolektiboko igerilekuen osasun-araudia onartzen duen otsailaren 18ko 32/2003 Dekretua aldatzeko edo ordeztzekoa.
8.6.– Dekretu-proiektua, Adikzioei buruzko informazio-sistema sortzen duena.
8.7.– Dekretu-proiektua, Haurren Hortzak Zaintzeko Programako (PADI) osasun-zerbitzuak ematekoa.
8.8.– Dekretu-proiektua, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 Dekretua ordeztzekoa.
8.9.– Dekretu-proiektua, Botikinak jardunean jartzeko baimen, baldintza eta funtzionamendurako erregimena ezartzeko azaroaren 28ko 500/1995 Dekretua aldatzen duena.
8.10.– Dekretu-proiektua, Farmazia-bulegoetako nutrizio- eta dietetika-atala arautzekoa.
8.11.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako farmazia-zerbitzuak arautzen dituen irailaren 1eko 243/1992 Dekretua aldatzekoa.

9.– Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
9.1.– Dekretu-proiektua, espetxe-arloko lanaren eta ikerketaren "Francisco Javier Gomez Elosegui" saria sortu eta arautzeko buruzkoa.
9.2.– Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituena.
9.3.– Dekretu-proiektua, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundearen Errolda sortu eta haren funtzionamendua arautzen duena.
9.4.– Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen parte-hartzea arautzen duena.
9.5.– Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Arreta Pertsonalizatuko Planari buruzkoa.
9.6.– Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretua aldatzen duena.
9.7.– Dekretu-proiektua, adinekoentzako ostatu-zerbitzuei buruzkoa.
9.8.– Dekretu-proiektua, etxeko indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako informazioa eta arreta emateko zerbitzuarena.
9.9.– Dekretu-proiektua, bonu termikoari buruzkoa.
9.10.– Dekretu-proiektua, familia-bitartekaritzako zerbitzu integralari buruzkoa.
9.11.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa sortzen duena.
9.12.– Dekretu-proiektua, Garapenerako Lankidetzaren Sustatzeko Funtzaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituena.
9.13.– Dekretu-proiektua, seme-alabak dituzten familientzako laguntzena.
9.14.– Dekretu-proiektua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egiturari organiko eta funtzionalari buruzko Dekretua hirugarren aldiz aldatzekoa.
9.15.– Dekretu-proiektua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta haren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen Dekretua aldatzekoa.
9.16.– Dekretu-proiektua, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimeen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoari buruzkoa.
9.17.– Dekretu-proiektua, deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneak arautzen dituena.
9.18.– Dekretu-proiektua, espetxeratuei, baldintzapean askatutako presoek eta senideei laguntzak ematekoa.
9.19.– Dekretu-proiektua, Transexualen dokumentazio administratiboa arautzen duena.
9.20.– Dekretu-proiektua, Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria arautzen duena.
9.21.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua aldatzekoa.

10.– Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
10.1.– Dekretu-proiektua, Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasunen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa sortzekoa.
10.2.– Dekretu-proiektua, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko Dekretua bigarren aldiz aldatzekoa.
10.3.– Dekretu-proiektua, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzen duen urriaren 16ko 222/2012 Dekretua aldatzen duena.
10.4.– Dekretu-proiektua, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzekoa.
10.5.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko kultura ondasun immaterialaren inbentarioa egiteko prozesua, haren egitura eta irispidea ezartzen duena.
10.6.– Dekretu-proiektua, Erakundearen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapena ebaluatu eta aitortzeko sistema arautzen duena.
10.7.– Dekretu-proiektua, Kulturaren Euskal Kontseiluaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa.

10.– Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
10.8.– Dekretu-proiektua, Goi-mailako Kirolari buruzkoa.
10.9.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa.
10.10.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentuak Balioesteko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordearen (COVASADE) funtzionamenduari buruzkoa.
10.11.– Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Sistemaren Erregelamendua onartzen duena.
11.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
11.1.– Dekretu-proiektua, Euskal kultura-ondareko elementu katalogatuen barneko turismo-gidariaren jarduna gaitzeko dena.
11.2.– Dekretu-proiektua, Hotel-establezimenduei buruzkoa.
11.3.– Dekretu-proiektua, Turismo aktiboa arautzen duena.
11.4.– Dekretu-proiektua, Bigarren eskuko ibilgailuen eta ibilgailu berrien salerosketan kontsumitzaileen informazio-eskubidea arautzen duena.
11.5.– Dekretu-proiektua, Balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratzen ez duten irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuetako erabiltzaileen informaziorako eta interes ekonomikoen babeserako eskubidea arautzen duena.
11.6.– Dekretu-proiektua, Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko 101/2018 Dekretua aldatzen duena (landa-ingurunea).
11.7.– Dekretu-proiektua, Kontsumoko erreklamazio-orriei eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexa, erreklamazio eta salaketei erantzuteko prozedurari buruzko uztailaren 1eko 142/2014 Dekretua aldatzen duena.